

# EUSKERAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA

Gero eta euskera gehiago entzuten da Durangoko kaleetan. Hori da Berbarok ekainaren hasieran egindako euskeraren kale erabileraren neurketatik atera daitekeen ondorio nagusia.

Jakin badakigu ezagutza eta erabileraren arteko jauzia oso handia dela, *Eustaten* datuen (2001) arabera Durangarren %45,27a da euskalduna eta %26,75a ia-euskalduna. Erabilera berriz beste kontu bat da. Hizkuntza jakinda ere, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira ezagutzatik erabilerara pasatzeko, horietan garrantzitsuena solaskideek ere hizkuntza jakitea da noski, eta jakinda ere erabili nahi izatea.

Euskera elkarten helburu nagusia erabileran eragitea da eta Berbaron ere hori lortzeko ahaleginetan dihardugu. Erabileran eragin nahi badugu ordea, erabilera hori zenbatekoa den

ezagutzea behar beharrezkoa da, horregatik, 1995. urtean hasita, neurketak egin ditugu Durangon eta erabilera, astiro bada ere, gora doala ikusi dezakegu.

1995ean Berbarok kale erabileraren neurketa lehenengoz egin zuenetik gaur arte erabilera 9,19 puntu igo da, gainera joera goranzkoa mantendu da beti adin tarte guztietan, aurten egindakoan nagusietan atzerakada txiki bat egon den arren. Oso nabarmena da 0-14 urte bitartekoen artean eman den gorakada.


Jarrera baikorra izateko datuak dira, beraz, esku artean ditugunak; normalizazioa lortzeko, ordea, lan handia eta luzea dago oraindik egiteko.

## kale erabileraren gaineko datuak eta grafikoa

	Umeak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-64)	Adinekoak (>65)	Guztira
1995	%19,64	%8,04	%9,66	%13,77	%12,06
2000	%26,53	%16,73	%12,47	%16,94	%16,62
2007	%36,1	%19,48	%17,75	%15,76	%21,25

2005ean ere egin zen kale neurketa. Akats batzuk tarteko, datu haiek kontutan ez izatea erabaki dugu.

- Umeak (0-14)
- Gazteak (15-24)
- ◆ Helduak (25-64)
- ▲ Adinekoak (>65)
- Guztira




## irakurri, gozatu eta oparitu

Kanpaina **uztailaren 21**era arte luzatzea erabaki dugu. Liburutegikoek eman dizkiguten datuen arabera, azkeneko egunetan hasi gara, batez ere, liburuak mailegatzeko; beraz, beste hila betez luzatuko dugu *irakurri, gozatu eta oparitu* proiektua, kanpainaren berri berandu jakin dutenek edo azkenera arte mugitzen ez direnek ere parte hartzeko aukera izan dezaten. Umeak izan dira gainera, oraingoan ere, aurre hartu eta askoz ere gehiago irakurri dutenak. Nagusien txanda da orain, opor garaian denbora falta ez da hain aitzakia ona izaten eta. Udara begira, liburu gehiago irakurri eta oparitzeko aukera duzue, hortaz! Badakizue liburutegiko liburua maileguan hartu, irakurtzen gozatu, deskontu txartela eskuratu eta eskatu liburu dendan!

# udalekuak'07

Gora doa Berbaroren eskaintza urterik urtera!



Euskarazko kalitateko aisialdia eskaini nahi diegu Durangaldeko ume eta gazteei, euskeraren erabilera eregiteko modu ona iritzita. Horra, kudeatuko ditugun udalekuen eskema:

ZENA	TOKIA	DATA	KOPURUA	ADINA
Udaleku finkoa	Etxami Aranaz	uztailak 15 - uztailak 26	45	9-13
Udaleku ibiltaria	Araia-Orio	uztailak 04 - uztailak 19	50	14-18
Uda Topera	Durango	ekainak 25 - uztailak 06 uztailak 9 - uztailak 19	282 165	3-14 3-10
Etorkinak euskera indartzeko	Durango	uztailak 02- uztailak 13	9	13-15
Kurutziaga ikastola	Kurutziaga ikastolan	ekainak 25 - uztailak 19	30	3-8
Garaiko udalekua	Garai	uztailak 02 - uztailak 19	8	3-12
Mallabiko udalekua	Mallabia	uztailak 02 - uztailak 19	35	4-12



## Udalekuak antolatzea

Udalekuei buruz idazten dugun bakoitzean, zenbat umek hartuko duten parte, nora joango diren, zein eskulan, irteera, jolas egingo dituzten, aipatzen dugu. Nork antolatzen du hori guztia, ordea?

Gazte arloko teknikariek hilabeteak ematen dituzte udalekuak ondo irten daitezen lanean.



umek taldeetan sailkatzen



formazio saioa

**Udaleku itxietan, finko zein ibiltarian**, urte hasieratik, udalekuak noiz eta non egingo diren zehaztu behar da, lekua lehenbailehen erreserbatzeko. Zenbat umerentzako lekua eskaini dezakegun definitu eta begiraleak aukeratu behar dira, ondoren. Begiraleek lekua ezagutzera joan beharko dute, zein joko, tailer eta irteera egingo diren definitu ahal izateko eta horiek egiteko beharrezko materiala erosi. Ibiltariaren kasuan, horrez gain, etapak aukeratu, lo lekuak aurkitu eta jatekoak ere antolatu beharko dira.

**Udaleku irekietako** lana, itxietan egiten denaren antzerakoa da, baina Durangoko udalaren lehiaketa publikoaren menpe, ebazpena noiz irtengo zain egon behar izaten dugu, *Uda Topera* Berbarok kudeatuko duen ala ez jakiteko. Hala ere, ebazpena ezagutu baino pare bat hile lehenago hasten dira begiraleak lanean. Ebazpena Berbaroren aldekoa bada, lanean diharduten berrogei bat begiraleri lan kontratua egiten zaie. Hauek, koordinatzailearen laguntzaz, umek udalekuan zehar minutuz minutu egingo dutena zehaztuko dute.

Hauek guztiak egindakoan, aseguruak kontratatu, udala eta gurasoekin batzarrak egin, begiraleentzako ikastaroa antolatu, dirulaguntza eskariak egin... eta beste hainbat kontu geratuko dira oraindik egiteko.

Elkarteko zuzendaritza, langileak, begirale mordoa... lanean jarri ondoren umek primeran pasatzea lortzen da eta euskeraz gainera! Balorazio batzarra ez dugu oraindik egin, udalekuak hasi ere ez baitira egin, baina dagoeneko badakigu merezi izan duela!



materiala antolatzen

# Euskera zerbitzua

Honezkerok jakingo duzue Berbaroko langile bik, udaleko euskara sailaren bitartez, herritarentzat Euskara Biziberritzeko Plana kudeatzen lan egiten dugula. Seguruenik ezagunak egingo zaizkizue *Julene Azpeitia lehiaketa*, *Aisa* ikastaroak, *Berbalagun* eta *Guk euskeraz* izeneko egitasmoa (merkataritzan, elkarteetan eta ostalaritzan euskara sustatzeko proposamena). Lan honetan dihardugunok interesgarriak suerta zaizkizuen hainbat kontu jakinarazi gura dizuegu:

- **MERKEALDIA:** urtero legez uztailan merkealdi kanpainari ekingo diogu. Herriko dendak janzten dituzten kartelak euskaraz ere egon daitezten ahalegina egingo dugu. Honetarako kalera irten eta gure itzulpen zerbitzua eskainiko dugu.


- **DENDAKETAN ETA ALFABETATZE IKASTAROAK:** Irailean merkatarientzako ikastaro bereziak antolatzeko asmoa daukagu. Alde batetik, HABEk proposatzen duen *Dendaketan* ikastaroa dago. Hutsetik hastekoa da, ezer edo oso gutxi dakienentzat. Beste aldetik, alfabetatze ikastaroa antolatzeko asmoa daukagu, idatzian eta zerbitzugintzako hiztegiaraz arazoak izan ditzaketen merkatariei eskainita. Honetarako beharrezkoa da talde bi osatzea, beraz jende nahikoak izena eman dezala. Kasu bitan merkatarien ordutegia kontuan hartuko dugu, ahalik eta errazen izan dakien. Esan behar dugu, dena dela, herrian euskara ikasteko eskaintza zabala dagoela: *AEK*, *Udal euskaltegia* eta *Hizkuntza Eskola*. Udalak diru-laguntza ederra ematen du euskara ikasteagatik eta honen gaineko informazioa ere guk eman dezakegu.

- **ORDUTEGIA:** Urte askoan erabili izan dugun ordutegi euskarria aldatu dugu. Irudi polit eta modernoagoa emateaz gain, erabiltzen dugun bestelako materialaren itxuraz lotuago dago.

Amaitzeko, Berbaroko bazkideok zaretenez gero, zilegi ikusten dugu zuon laguntza eskatzea. Hori dela eta, zuok merkataririk ezagutzen baduzue, ikastaroetan parte hartzera animatzea eskertuko genuke, hala nola dendako kartel, ordutegi, oharrak eta abarrak euskarazera. Gogorazi gure itzulpen zerbitzua debaldekoa dela, eta eurentzat errentagarria izan daitekeela euskara bezeroekin erabiltzea.

Uda gozatu eta ez ahaztu:

*"Ikusi ala ez ikusi, zeruan dago eguzki"*



hauxe da hemendik aurrera topatuko dugun ordutegi euskarri berria



Tel: 94 603 00 16 / Posta elektronikoa: [gukeuskeraz@durango-udala.net](mailto:gukeuskeraz@durango-udala.net)

## berbaro eta abar...

Orain dela 18 urte jaio zen Berbaro zuon guztion indarrak. Urte hauetan asko hasi da elkarte eta seme-alabak ere izan ditu. Proiektu berri haiek forma hartuz joan dira eta bakoitzak bere bidea egin du. Egin dezagun errepasotxo.

**Eraz-etik Anbotora:** Eskualdeko euskerazko komunikabidea da *Anboto*. Egun, [www.anboto.org](http://www.anboto.org) web guneak 15.000 bisita jasotzen ditu hileroko, irratia askoz ere etxe gehiagotara heltzen da antena eta frekuentzia berriari (FM-ko 99.0) esker eta, ostiralero, 9.000 etxetan irakurtzen den *Anbotok* gero eta orrialde eta gehigarri gehiago ditu, *Lau Hanka* eta *Gazteen Zuloa* horietan berrienak. Martxan hastekoa da, halaber, internet bidezko TB kultural berria, adi!

**Di-da:** 1999. urtean sortu zen *Sormenek* eta *Berbarok* bat eginda. Diseinua, itzulpena eta komunikazioa langaitzat hartuz, euskara enpresa munduan txertatzea helburu duen kooperatiba da *di-da*. Azkenaldian egindako lan batzuk dira Durango, Elorrio eta Zornotzako Ibilaldiak, azkeneko 3 Korrikak eta Euskal Astea, besteak beste. Baina [www.di-da.com](http://www.di-da.com) web gunean askoz ere informazio gehiago aurkituko duzue. Gainera, datorren ikasturtearekin batera, lokal berria inauguratuko dute Abadiñon. Zorte on!

**Plateruena:** 2005eko urrian eman zitzaion Berbaroren azkeneko proiektu handiari hasiera. Buru-belarri dihardute, antzerki, kontzertu, hitzaldi... eta era guztietako kultur emanaldiak antolatzen. Bestalde, ostalaritza eskaintza ere haziz doa, pintxoak, bazkariak, taldeentzako bazkari bereziak... Aukerako eskaintza! [www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

# argitalpen berriak

**Kao: Sumendiko sekretua' bideojokoa.**

Argitalpena: **PC CD-ROM**  
**Elhuyar Fundazioa**  
Prezioa: 24,95 €



Aisialdirako kaleratzen duen bigarren bideojokoa da hau. Ordenagailuan erabiltzekoa da, eta 10 urtetik gorako gaztetxoentzat. web gunean proba dezakezu jokoa

*Kao: Sumendiko sekretua* ordenagailurako bideojokoa argitaratu berri du Elhuyar Fundazioak. 3Dko teknologia erabiltzen duen aisialdirako CD-ROMa da, eta 10 urtetik aurrerako gaztetxoentzako dago pentsatuta. Tate multimedia-entresa poloniarrak egin du jatorrizko jokoa, eta hainbat hizkuntzatarari ari dira itzultzen. Euskarazko bertsioko Elhuyar Fundazioak kaleratu du. Jokoaren protagonista Kao izeneko kanguru bat da. Hamar eremutan lagundu behar dio jokalariai Kao bere eginkizuna gauzatzeko. Bidaia luze baten ostean, uhartean duen etxera itzuli da Kao, atsedean hartzera, baina ezin: bere lagun Tximista sumendi baten barrura erori da eta hor bizi diren labazko munstroak esnatu ditu. Munstro horiek uhartea suntsitzea erabaki dute, eta hango biztanleak oso izututa daude. Kaoren eginkizuna da munstroak garaitzea, uharteko xamanak emango dizkion argibideei jarraituz. Jokalaria ez du aspertzeko aukerarik izango, errealitate bertualeko lasterketak, puzzleak osatu, motordun txalupetan ibili, airean borrokatu... egin beharko baitu hamar eremu horietan.

Ikus-entzunezko efektu izugarriak ditu jokoa, 3Dko teknologiari esker: palmeren mugimendua nabaritzen da, Kaoren hanka-arrastoak ikusten dira bidea egin ahala, eguneko eta gaueko zikloak minutu gutxiren buruan bereizten dira...

# ikimilikili..klik

Lanagatik edota zaletasunagatik nabigatzen duzuenoi zuzenduta dago oraingo ikimilikilikli-a. Proposamentxo bat da, hainbat bider aipatzen den euskara erabileraren neurketetan gezia gorantz ipini dezagun.

Saguarekin gora eta behera zabiltzatenean, lehenengo eta behin, hizkuntza aukera klikatu ezazue, euskara, jakina.




Gaur egun, web orri gehienetan topatu dezakezue aukera hau, bilatzaile nagusia den Google-tik hasita. Bilatu beharreko hitza idazteko lekuan "Google.es honako hizkuntzatan ere erabili dezakezu: euskara, español, catalá, galego, esaldia topatuko duzue euskara sakatu, klik egin, ez da ezer kostatzen!

Era berean, bankuko eragiketak egiteko BBK-k, Euskadiko Kutxak, edota Bankoak aukera hori ematen dute, gainera zalantzarik izan ezkeru hiztegia ere bertan duzue.

Medikuaren zita eskatzeko [www.osanet.euskadi.net](http://www.osanet.euskadi.net) -era sartu eta ordua euskaraz eskatu dezakezue.

[www.eitb.com/eu/](http://www.eitb.com/eu/) web gunean berriak euskaraz irakurtzeko aproposa da.

Dagoeneko argi geratu da zein den proposamena ez? Sarean ere euskara erabili!



## LASTER OPORTAIA!



**ONDO ETORRIA IZAN DA DILA ATSEDENA!**

Uztailaren bukaeran, udalekuak amaitu bezain laster, Berbaroko langileok ere oporrak hartuko ditugu!

Iraillean, indarberrituta itzuliko gara ikasturte berriari gogotsu heltzeko. Proiektu ugari izango ditugu zain: defentsa personal ikastaroa, Haur Literatur Aretoa, Olgetan, besteak beste. Zuen iradokizunak jasotzeko ere oso momentu ona izango da, beraz, animatu zaitezte.